

Alberto Itoiz Nicuesa zeharkako txirula ikasten hasi zen bere herriko (Zangoza) "Juan Francés de Iribarren" musika eskolan, eta bukatu, berriz, Iruñeko "Pablo Sarasate" goi mailako musika kontserbatorioan. Nabarmendu behar dira Hendaian eta Parisen egin dituen ikastaroak.

Hainbat talderekin lan egin du, hala nola, Haize Instrumentuen Orkestra, Orkestra Gaztea eta "Pablo Sarasate" Orkestra (OSN), eta abarrekin, baita ganbera musikako zenbait talderekin ere. Grabaketak eta birak egin ditu Espainian eta Italian zehar eta kontzertuak eman, bakarlari gisa.

Hobekuntza ikastaroak eta master-class direlakoak egin ditu zenbait nazioarte mailako txirula jotzaile ezagunekin.

Irakasle aritu da Errioxan, Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan. Zeharkako txirulako ikastaroak eman ohi ditu.

Gasteizko Udal Musika Bandako txirula jotzaileetako bat da, oposizio-lehiaketa bidez.

Muramatsu urrezko txirula batekin jotzen du.

www.albertoitoiz.com

